DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Easo, 43 2º | Tel. 010 - 943481038 | udala_hirizerbitzuak@donostia.eus www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Digitalki Sinatua
Tokiko Gobernu Batzarra
Junta de Gobierno Local
TGB akordioa
Acuerdo de JGL
2024/03/19
Zinegotzi idazkaria / Concejal-a secretario-a
Miren Nekane Arzallus Iturriza
Firmado Digitalmente
DONOSTIA, 2024KO MARTXOAK 12.
SAN SEBASTIAN, 12 DE MARZO DE 2024.

DONOSTIAKO UDALERRIKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA ETA ANTZEKO BESTE ZERBITZUK BATZUK KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA.

AURKIBIDEA

1. KAPITULUA.- KONTRATUAREN XEDEA
2. KAPITULUA.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK
3. KAPITULUA.- ZERBITZUEN DESKRIBAPENA
4. KAPITULUA.- LANGILEAK
5. KAPITULUA.- MAKINERIA ETA MATERIALA
6. KAPITULUA.- INSTALAZIO FINKOAK
7. KAPITULUA.- ZERBITZU OROKORRAK
8. KAPITULUA.- LANAK ANTOLATZEA ETA PLANIFIKATZEA. KONTROL-SISTEMAK

ERANSKINAK

1. eranskina. - Auzoen eta horien unitate txikien izenen zerrenda – Planoa.
2. eranskina. - Kontratuan erabiliko diren egungo zerbitzuko ibilgailuen zerrenda.
3. eranskina. - Libreki erabil ahal izango diren gaur egungo zerbitzuko ibilgailuen zerrenda.
4. eranskina. - Parkeen eta lorategi irekien kokapena.
5. eranskina. - Paperontzien kokapena
6. eranskina. - Txorko irekiak eta itxiak.
7. eranskina. - Bide publikoan dauden eskaileren, lurpeko eta aireko pasabideen eta igogailuen Kokapena.
8. eranskina. - Bide publikoan kokatutako azokak eta azoka txikiak garbitzea.
9. eranskina. - Kristalezko baranden, eskaileretako balaustraden eta arrapala mekanikoen kokapena.
10. eranskina. - Jaien eta bestelako ekitaldien garbiketa bereziak: azokak, kirol-ekitaldiak, kontzentrazioak, ekitaldi publikoak eta antzeko beste ekitaldi batzuk.
11. eranskina. - Haurrak dibertitzeko gailuen kokapena.
12. eranskina. - Kirol-instalazio irekien kokapena.
13. eranskina. - Urmaelen eta iturri apaingarrien kokapena.
14. eranskina. - Txakurrentzako parkearen kokapena.
15. eranskina. - Puntu beltzen zerrenda
16. eranskina. - Elur Plana. Elurteak/izozteak gertatzeko arriskuaren aurrean jarduteko udal-plana
17. eranskina. - DonostiaTIK
18. eranskina. - Sepiolita prozedura.
19. eranskina. - Banakapena
20. eranskina. - Landa-errepideak

I. KAPITULUA.- KONTRATUAREN XEDEA

1- art.- Donostiako Udalak Kaleak Garbitzeko Zerbitzua eta antzeko beste batzuk kontratatu behar ditu.

Kontratazioaren xede izango dira Donostiako udalerriko kale, bide, industria eta enpresa poligono guztiak eta, oro har, esparru publiko guztiak garbitzearekin zerikusia duten lan guztiak, honako hauek izan ezik: lorategi-aldeak, landa-izaerako oinezkoen bideak eta, beren erabilera edo izaeragatik, beste zerbitzu edo erakunde batzuek garbitu edo mantendu behar dituztenak.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Easo, 43 2º | Tel. 010 - 943481038 | udala_hirizerbitzuak@donostia.eus www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Egin beharreko lanen multzoa eta zerbitzuen irismena Preskrikpzio Teknikoen Agiri honetan adierazita daude, eta neurria eta irismena gehiago zehaztuko da azken buruan esleipendun suertatzen den eskaintzan.

Enpresa esleipenduna behartuta egongo da, egiten dituen lan guztietan, bide-garbiketan erabiltzen diren prozesuen eta materialen baldintza teknikoei buruzko legeria guztia betetzera, hala nola ingurumena babesteari, ingurumen-inpaktuari, energiari, hondakinei, laneko segurtasunari eta osasunari, irisgarritasunari, lurzoruen babesari eta abarri buruzkoa. Zerbitzu horri aplikatu beharreko udal-ordenantza, lege, arau, jarraibide edo erregelamendu ofizialetan jasotako agindu guztiak ere bete beharko ditu.

Zerbitzua ingurumena errespetatzen duten metodo, praktika eta produktuekin emango da.

II. KAPITULUA.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK

2. artikulua.- Zerbitzuak honako hauek dira:

1. BIDE-GARBIKETA.
1. PARKE ETA LORATEGI IREKIAK GARBITZEA.
2. PAPERONTZIAK GARBITZEA ETA ORDEZTEA, JARTZEA ETA KONPONTZEA.
3. ORBAN ERREPIKAKORRAK GARBITZEA.
4. TXORKO IREKI ETA ITXIAK GARBITZEA.
5. BIDE PUBLIKOAN DAUDEN ESKAILERAK, LURPEKO ETA AIREKO PASABIDEAK ETA IGOGAILUAK GARBITZEA.
6. ANIMALIEN GOROTZAK GARBITZEA ETA KENTZEA.
7. BIDE PUBLIKOAN KOKATUTAKO MERKATUAK ETA AZOKA TXIKIAK GARBITZEA.
8. KRISTALEZKO BARANDAK, ESKAILERETAKO BALAUSTRADAK, ARRAPALA MEKANIKOAK ETA BEIREZ INGURATUTAKO ESPARRUAK GARBITZEA.
9. JAIEN ETA BESTELAKO EKITALDIEN GARBIKETA BEREZIAK: AZOKAK, KIROL-EKITALDIAK, KONTZENTRAZIOAK, JENDAURREKO EKITALDIAK ETA ANTZEKO BESTE EKITALDI BATZUK.
10. PINTADAK GARBITZEA ETA KARTELAK, PAPERONTZIAK, BANDERATXOAK, ERANSKAILUAK, IRAGARKIAK ETA EZAUGARRI BEREKO BESTE ELEMENTU BATZUK KENTZEA
11. HAURRAK DIBERTITZEKO GAILUAK GARBITZEA.
12. KIROL-INSTALAZIO IREKIAK GARBITZEA.
13. URMAELAK ETA ITURRI APAINGARRIAK GARBITZEA.
14. TXAKURREN PARKEA GARBITZEA.
15. IBAIA GARBITZEA
16. HILDAKO ANIMALIAK BIDE PUBLIKOETATIK KENTZEA.
17. AURREKO ZERBITZUETAN JASOTAKO HONDAKIN GUZTIAK BILDU ETA ZABORTEGIRA ERAMATEA.
18. ELURTE ETA/EDO IZOZTE HANDIETARAKO PLANA.
19. APARTEKO GARBIKETA ETA LANAK
20. ZERBITZU OROKORRAK
21. ZERBITZUAREN KONTROL ETA KALITATE SISTEMAK

3. art.- Kontratu honen babesean, eta unean-unean eta baldintza berezietan, enpresa esleipendunak nahitaez esku hartu beharko du aurrekoen artean ez dauden lanetan, edo, justifikatuta, une katastrofikoetan (uholdeak, larrialdiak, hiriko ezohiko gertaerak, une honetan aurreikusi ezin direnak) lan horien hornidura nabarmen eta puntualki indartzea eskatzen duten lanetan. Hala behar izanez gero, enpresa esleipendunak berehala eta beti jardun beharko du, 19. eranskinean aurkeztutako banakapenaren arabera.

III. KAPITULUA.- ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

4. art.- Behean, egin beharreko lan nagusiak zehazten dira: garbiketa-sistemetako gutxieneko prestazioak kontratuaren xede den zerbitzu bakoitzerako, enpresa lizitatzaileek egin beharreko eskaintzak egiteko oinarri gisa balio dezaten.

Eremu publikoaren erabilerak bateragarri izan beharko du garbiketa-zerbitzuekin eta oinezkoen eta ibilgailuen mugikortasunarekin, bai eta beste zerbitzu publiko batzuen jarduerarekin ere.

Zerbitzuak bide publiko osoaren garbiketa bermatu beharko du, eremu bakoitzari dagokion garbiketa-mailaren arabera, eta erabilera publikoko eremuetako produktu eta hondakin guztiak kendu beharko ditu: espaloiak, galtzadak, plazak, ataripeak, eskailerak, lurpeko pasabideak, gaineko pasabideak, arekak, bidegorriak, aparkalekuak eta agiri honetan definitutako beste hiri-elementu batzuk.

Udalak beretzat gordeko du "puntu beltzak" izenekoek (15. eranskina) dituzten beharrak aldatzeko ahalmena, agiri honetan oro har eskaintzen diren bitartekoak eta maiztasunak gorabehera. Puntu horiek gatazkatsuak dira, bertan pilatzen den zikinkeria askorengatik, eta badaude batzuk berriak direnak eta orokorrek baino bitarteko handiagoak behar dituztenak. Puntu horiek Udalak zehaztuko ditu kontratuak dirauen bitartean, eta kontratuan erabilitako baliabideekin garbituko dira.

5. artikulua.- Garbiketa-mailak

Hiria ezaugarri fisikoak eta erabilera desberdinak dituzten auzoez, kaleez, eremuez eta elementuz osatuta dagoenez, eta horietako bakoitzak garbiketa-maila, bitarteko eta maiztasun desberdinak behar dituztenez, preskripzio-agiri honetan zazpi maila nagusi bereizten dira: A, B, C, D, E, F eta G.

Hiria auzotan banatuta dago, eta horietako bakoitza, unitate txikitan ere banatuta dago. Horiek erantsitako taulan azaltzen dira (I. eranskinean Donostiako planoa ageri da, auzoekin eta unitate txikiekin).

▪ AIETE	ATEGORRIETA-ULIA	LOIOLA
Arbaizenea	Ategorrieta	Lorategi-hiria
Bera Bera	Manteo	Kuartelak
Errondo	Ulia Barren	Loiolako herrigunea

Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Easo, 43 2º | Tel. 010 - 943481038 | udala_hirizerbitzuak@donostia.eus www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Etxadi Lugaritz Munto Pagola Aieteko jauregia Puio Lanberri Mirakontxa pasealekua ALTZA Altza-Gaina Arria Auditz-Akular Buenavista Eskalantegi Herrera Larratxo Landarro-Esnabide Molinao Oleta AMARA BERRI Anoeta Amara Berri Morlans ANTIGUA Benta Berri Faro-Erregenea Heriz-Aitzgorri Matia Ondarreta Pio Baroja AÑORGA Amasorrain Añorga Añorga Txiki Atotxa Erreka Belartza Errekalde	ERDIALDEA Amara Zaharra Eremu Erromantikoa EGIA Aldakonea Atotxa Iruresoro Jai-Alai Mundaiz Urumea pasealekua Tolaregoia GROS Gros Sagues IBAETA Arriola Berio Kanpusa Infernua Errotaburu Igara Iza Lorea Zuatzu IGELDO Amezti Igeldo-Herria INTXAURRONDO Intxaurrondo Berri Ipar Intxaurrondo Hego Intxaurrondo Intxaurrondo Zaharra Marrutxipi	Patxillardegi MARTUTENE Antzita Eliseo Zelaiak Martutene 27. poligonoa Portutxo MIRAKRUZ-BIDEBIETA Mirakruzgaña-Arrobi Bidebieta Bidebieta-Artazkone MIRAMON-ZORROAGA Ospitaleak Illunbe Iyola Miramon Oriamendi Zorroaga • PARTE ZAHARRA • LOIOLAKO ERRIBERAK • TXOMIÑENEA • ZUBIETA

Maila bakoitzean, garbiketa-maila espezifikoa aplikatu beharreko unitate txikiak eta auzoetako alde jakinak definitzen dira.

Lizitatzaileak bideak garbitzeko plan bat aurkeztu beharko du, honako hauek zehaztuta:

- Makineriaren ibilbideak, zerbitzua optimizatzeko.
- Auzo/eremu bakoitzeko garbiketa-beharretara egingo diren egokitzapenak, erabileren eta urtaroen arabera.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Easo, 43 2º | Tel. 010 - 943481038 | udala_hirizerbitzuak@donostia.eus www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Mailak zehazteko, honako alderdi hauek hartu dira kontuan, batez ere:

- Ibilgailuen eta oinezkoen trafikoaren garrantzia.
- Jarduera nagusia.
- Hondakin-motak eta horien kausak.
- Garbiketa-lanak egiteko zailtasun nagusiak.
- Bide-sarearen faktore fisiko-geometrikoak.
- Biztanleria-dentsitatea.
- Aurreko garbiketa-kontratuetatik eskuratutako datuak, argi eta garbi adierazten dutenak arreta espezifikoaren beharra.

Aipatutako irizpideen arabera, sektore bakoitzean egin beharreko **gutxieneko** lanak eta maiztasunak ezartzen dira hemen.

1.- «A» maila

– Espaloiak eta galtzadak eskuz edo/eta makinaz ekortzea - 7 aldiz astean
Espaloiak eta galtzadak eskuz edo/eta makinaz baldez ureztatzea - 7 aldiz astean
Mantentzeko ekortzea - 7 aldiz astean

2.- «B» maila

Espaloiak eta galtzadak eskuz ekortzea - 7 aldiz astean
Espaloiak eta galtzadak makinaz ekortzea - 6 aldiz astean
Espaloiak eta galtzadak eskuz edo/eta makinaz baldez ureztatzea - 6 aldiz astean
Mantentzeko ekortzea - 7 aldiz astean

3. «C» maila.

Espaloiak eta galtzadak eskuz edo/eta makinaz ekortzea - 6 aldiz astean
Espaloiak eta galtzadak eskuz edo/eta makinaz baldez ureztatzea - 3 aldiz astean
Mantentzeko ekortzea - 1 aldiz astean

4. «D» maila.

Espaloiak eta galtzadak eskuz edo/eta makinaz ekortzea - 6 aldiz astean
Espaloiak eta galtzadak eskuz edo/eta makinaz baldez ureztatzea - 1 aldiz astean
Mantentzeko ekortzea - 1 aldiz astean

5.- «E» maila.

Espaloiak eta galtzadak eskuz edo/eta makinaz ekortzea - 3 aldiz astean
Eskuz edo/eta makinaz baldez ureztatzea - 1 aldiz astean

6.- «F» maila

Galtzadak makinaz ekortzea - 3 aldiz astean
Galtzadak makinaz baldez ureztatzea - 1 aldiz astean

6.- «G» maila

Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Easo, 43 2º | Tel. 010 - 943481038 | udala_hirizerbitzuak@donostia.eus www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Preskripzio-agiri honetan adierazten den bezala, landa-eremuetako bide guztien garbiketa kontratu honen xedeetako bat da; beraz, lizitatzaileak garbiketa-mailak proposatuko ditu, gutxienez honako lan eta maiztasun hauekin:

- Udazken-neguan, galtzadak eskuz eta/edo mekanikoki ekortzea: bi hilean behin

Landa-eremuak ekortzeko, hortz mistozko eskuilak erabiliko dira (alanbrea/zuntza). 20. eranskina erantsi da, atal hau dimentsionatzeko erreferentzia gisa.

Eremuen zerrenda eta beren garbiketa-maila honako hau da:

NIVEL	BARRIO	UNIDAD MENOR
NIVEL A	- Parte Zaharra	- Parte Vieja
NIVEL B	- Centro	- Area Romántica - Amara Zaharra
NIVEL C	- Antiguo - Amara Berri - Gros - Egia - Intxaurrondo - Miracruz-Bidebieta - Altza - Loiola - Martutene	- Matia, Ondarreta, Benta Berri - Amara Berri, Anoeta - Gros, Sagües - Atotxa, Iruresoro, Pº Urumea - Intxaurrondo Norte, Sur, Zaharra, Berria y Marrutxipi - Bidebieta - Larratxo, Arria, La Herrera - Loiola casco - Martutene, Portutxo
NIVEL D	- Resto de la ciudad con alta densidad demográfica, que originan tráfico rodado y peatonal intenso.	- Aiete - Miracruz-Bidebieta - Morlans - Pio Baroja - Jai Alai - Errotaburu - Patxilardegi - Riberas de Loiola - Txomin Enea
NIVEL E	- Calles, viales y espacios públicos no inscritos en los niveles anteriores con carácter empresarial.	- Altza Gaina, Auditz Akular, Buenavista, Eskalantegi, Landarro Esnabide, Molinao, Oleta - Faro Erregenea, Heriz Aitzgorri - Añorga - Ategorrieta- Ulia - Aldakoenea, Mundaiz, Tolaregoia - Arriola, Berio, Campus, Infierno, Igara, Iza, Lorea, Zuatzu - Igeldo - Ciudad Jardin,Antzita,Campos Eliseos, Polígono 27 - Miramo Zorroaga - Zubieta
NIVEL F	- Vías de tráfico rápido o de acceso a la ciudad de titularidad municipal.	- Avda. Pasajes San Pedro - Avda. Tolosa - Avda. Buenavista - Paseo de Otxoki - Viales Izostegi – Lugaritz (delimitado por rotondas de Morlans – Lazkano – Lugaritz – Plaza America) - Eje Avda. Carlos I – C/PM.Collado – Zuaznabar- Puente JA Agirre – Pº Urumea – Fco Garcia Lorca – Pº Francia)
NIVEL G	- Víales rurales	
Excluido	- No es objeto del ámbito de actuación LV	- Monte Urgull - Parque Atracciones Monte Igeldo - Isla Santa Clara (Contrato Playas) - Universidad EHU - Cuarteles Loiola (Militar) - Mundaitz (Parque Histíco C.Enea) - Puerto Deportivo y Pesquero - Oberan - Landarbaso

6. artikulua.- Bide-garbiketako lanen deskribapena

Bide-garbiketako zerbitzuak eta antzeko zerbitzuak lan hauek osatzen dute:

- Espaloiak eta galtzadak eskuz ekortzea. Paperontziak garbitzea eta biltzea.
- Galtzadak makinaz ekortzea.
- Espaloiak makinaz ekortzea.
- Ekorketa mistoa.
- Espaloiak eta galtzadak eskuz baldez ureztatzea
- Galtzadak makinaz baldez ureztatzea
- Espaloiak makinaz baldez ureztatzea
- Mantentzeko ekortzea
- Espaloiak makinaz desugertzea
- Parkeak eta lorategi irekiak garbitzea
- Egoera txarrean dauden paperontziak garbitzea, ordezkatzea, jartzea eta konpontzea
- Orban errepikakorrak garbitzea
- Txorko ireki eta itxiak garbitzea.
- Bide publikoan dauden eskailerak, lurpeko eta aireko pasabideak eta igogailuak garbitzea.
- Bide publikoan kokatutako azokak eta azoka txikiak garbitzea.
- Kristalezko barandak, eskaileretako balaustradak, arrapala mekanikoak eta beirez inguratutako esparruak garbitzea.
- Jaien eta bestelako ekitaldien garbiketa bereziak: azokak, kirol-ekitaldiak, kontzentrazioak, jendaurreko ekitaldiak eta antzeko beste ekitaldi batzuk.
- Pintadak garbitzea eta kartelak, pankartak, banderatxoak, eranskailuak, iragarkiak eta ezaugarri bereko beste elementu batzuk kentzea.
- Haurrak dibertitzeko gailuak garbitzea.
- Kirol-instalazio irekiak garbitzea.
- Urmaelak eta iturri apaingarriak garbitzea.
- Txakurren parkea garbitzea.
- Urumea ibaia garbitzea.
- Aparteko garbiketa eta lanak.
- Garbiketa berezia, hostoen erorketa dela-eta.

7. artikulua.- Espaloiak eta/edo galtzadak eskuz ekortzea. Paperontziak garbitzea eta biltzea.

Lan horretan, espaloiak, pasealekuak, ataripeak, eskailerak, arekak, aparkalekuak, bidegorriak, plazak, galtzadak eta antzeko ezaugarriak dituzten beste eremu batzuk garbituko dira, zehaztasunez, bereziki zintarrien inguruetan. **Zeregin horretarako lan-unitatea langile batek osatuko du.** Eskuilak, erratzak, eskuilak, aitzurrak, orgak eta abar erabiliko ditu.

Zeregin honetan honako lan hauek ere sartzen dira:

- Animalien gorotzak kentzea, eskuila eta palarekin.

- Edukiontziak dauden aldeetan, kanpoan utzitako hondakin guztiak kenduko dira, dagoen birziklatze-sistemari jarraituz.

- Alde horietan sortzen diren belar edo landare arrasto guztiak kenduko dira, makinaz kendu ezin direnak. Beste bitarteko batzuen bidez ezin badira kendu, langileak fumigatu egin beharko ditu landareekin amaitzen

duen disoluzio ez-oldarkor batekin: adibidez, ozpina urarekin nahas dezake edo gatz-disoluzioa erabili (dosi txikian).

- Euri-urak biltzeko hustubideen sareta guztien azaleko ekorketa, gutxienez astean behin.

- Paperontziak hustu eta garbitzeko lanak, eta poltsak birjartzea. Paperontzia noraino beteta dagoen, horren arabera egingo dira hustuketak, eta egunean zehar paperontziak ezin izango du gainezka egin. Poltsak berehala eramango dira dagokien edukiontzira. Zerbitzu horren barruan, enpresa esleipendunak azaleko zikinkeria eta eranskailuak errepasatu eta kendu beharko ditu.

Lan horietan, eskuz erabiltzeko makina txikiak erabili ahal izango dira.

Eskuzko ekorketatik datozen hondakinak leku publiko egokietan instalatutako ontzi espezifikoetan bildu eta utziko dira.

Orgek poltsak eramango dituzte, edukiontzira deskargatzean produktuak bide publikoetara ez isurtzeko.

Lizitatzaileek, beren eskaintzetan, gaikako paperontzien hustuketa bereziak aurreikusiko dituzte, beren ezaugarriengatik hala behar duten hiriko aldeetan.

Poltsa konpostagarriak erabiliko dira frakzio organikoa duten paperontzietan. Poltsek I. motako ekoetiketaren baten (aingeru urdina edo baliokidea) irizpideak beteko dituzte, produktuaren formulazioan konposatu kimikoak egoteari dagokionez.

5. eranskina txertatu da, zerbitzua dimentsionatzeko erreferentzia gisa.

8. artikulua.- Galtzadak makinaz ekortzea.

Makinez egin beharreko lana da, zintarrietatik hurbil dauden galtzada-aldeetan pilatutako hondakinak kentzeko, gutxienez 1,5 metroko zabaleran. Horretarako, xurgatze edo arrastatze makina ekortzaileak erabiliko dira, hezetze-sistema automatikoak dituztenak, hautsa sortu ez dadin, eta kanporatutako aire-iragazkiak ere izango dituztenak. Lan honetarako lan-unitatea makina mota horiek gidatzeko eta erabiltzeko gaitasuna duen langile batek osatuko du. Lehentasunez, honako hauetan egingo da ekortze-lan hori:

- Hiriko sarbideak, ibilgailu-zirkulazio handia jasaten dutenak.
- Aparkalekurik gabeko galtzadak edo aparkalekua alde bakar batean dutenak.
- Makinaz tratatzea onartzen duten oinezkoen galtzadak

9. art.- Espaloiak makinaz ekortzea

Lan honetan, bide publikoan dauden espaloiak ekortzen dira, makina espezializatuak erabiliz; hondakin, zabor, hauts eta makinak xurgatu ditzakeen elementu guztiak bilduz eta kenduz. Makinek hezetze-sistemak izan beharko dituzte, hautsik sor ez dadin, eta maniobragarritasun handikoak izango dira, beren lan-baldintzen arabera. Lizitatzaileak kontuan hartu beharko du makinen pisua eta horrek zoladuran izan dezakeen eragina. Zeregin honetarako lan-unitatea langile batek osatuko du, makina mota horiek gidatzeko eta erabiltzeko gaitasuna duena.

Lehentasunez, honako hauetan egingo da ekortze-lan hori:

- Makinak pasatzeko moduko zabalera duten espaloi eta pasealekuak, oinezkoen zirkulazio handia dutenak.
- Oinezkoen aldeak.
- Eskuzko ekorketaren osagarri eta lagungarri gisa, garbiketa-maila hobetzeko.

10. art.- Ekorketa mistoa.

Ekorketa mistoan, eskuila edo haize-makina duen langile bat eta ekortzeko ibilgailu bat konbinatzen dira. Horrela, haize-makinako langileak hondakinak eta hostoak arrastatzen ditu galtzadetan aparkatuta dauden ibilgailuen azpitik eta ezkutuko hondakinak dauden oinezkoen aldeetatik. Ekortzeko ibilgailurantz eramaten ditu, biltzeko. Ekortzeko makina daraman langileak makina mota horiek gidatzeko eta erabiltzeko gaitasuna izango du.

Ekorketa mistoa beharrezkoa edo ezinbestekoa denean aplikatuko da:

- Espaloiak, pasealekuak eta oinezkoen aldeak, baldin eta horien zabalera nahikoa bada makinak handik igarotzeko, eta,bertan, harrapatzeko zailak diren hondakinak pilatzen badira.
- Aparkalekuak dituzten galtzadetan, aparkatutako ibilgailuen azpitik atera behar direnean hondakinak.

11. art.- Espaloiak eta/edo galtzadak eskuz baldez ureztatzea

Espaloiak eta galtzadak eskuz garbituko dira, urez, hondakinak, hareak edo antzekoak arrastatzeko eta bide publikoan pilatuta uzteko, gero ekorketa-lanen bidez biltzeko.

Ur-hornidura, hasiera batean, ur-hartuneetatik egingo da; beraz, mahukak, giltzak eta beharrezko gainerako elementuak ur-hartuneen ezaugarrietara egokituko dira.

Ur-hartuneak erabili ezin direnean edo lizitatzaileak uste duenean zerbitzua horrela hobetuko dela, ur-horniketa zisterna-ibilgailuen edo bestelako bitarteko mekaniko espezializatuen bidez egin ahal izango da.

Lan horiek herritarrei kalte gutxien eragiten dien ordutegian egingo dira (goizeko lehen orduan, inguruan jende gutxiago dagoenean, larrialdiaren arabera edo antzeko arrazoiren batengatik).

Bai mahukek, ur-hartunearen ondoan jarriak, bai erabili beharreko bitarteko mekanikoek ur-kontagailuak izango dituzte, zenbat kontsumitzen den jakiteko. Ezin izango dira bitarteko horiek erabili kontagailurik izan ezean.

12. art.- Galtzadak makinaz baldez ureztatzea

Lan honetan, ura presioz botatzen da galtzadetan eta, bereziki, zintarrien inguruetan.

Horretarako, ahoko orientagarriak eta arrapala dituzten makina edo ibilgailu espezializatuak erabiliko dira, ur-zurrusta zintarrietarantz bideratuko dutenak, zikinkeria modu eraginkorrean arrastatzeko moduko presioa erabiliz, eragozpenik sortu gabe edo autoei edo bide publikoko elementuei kalterik eragin gabe. Lan honetarako lan-unitatea makina mota horiek gidatzeko eta erabiltzeko gaitasuna duen langile batek osatuko du.

Behar izanez gero, produktu kimiko usaintsuak, koipegabetzaileak eta xaboidunak erabiliko dituzte usainak eta orbanak ezabatzeko. Lan horren bidez, hondakinak zintarrien ingurura eramango dira, eta bertatik jasoko dira ekorketa-lanetan.

13. art.- Espaloiak makinaz baldez ureztatzea.

Espaloien gainazal osoa baldez ureztatzen da; hala, hondakinak zintarrietarantz joaten dira, gero ekorketa-lanen bidez biltzeko.

Lan hori ekorketekin batera egin beharko da, espaloien gainazalean presio eta emari handiak botatzen dituzten ibilgailu bereziak erabiliz, zoladuraren gainazalaren egoera ezin hobea lortzeko. Lan honetarako lan-unitatea makina mota horiek gidatzeko eta erabiltzeko gaitasuna duen langile batek osatuko du.

Ahal dela, garbiketa-maila handia behar duten eremuetan aplikatuko da, eskuzko ekortze-baldez ureztatze erabili ezin denean, eta beste eremu batzuetan, ekorketaren osagarri gisa.

14. art.- Mantentzeko ekortzeak.

Lan horietan, batez ere, espaloiak, pasealekuak eta zintarriak garbitzen dira, paperontziak husten dira, zabor-bilketako hondakinak jasotzen dira, eta ez da beharrezkoa bide-azalera osoa ekortzea, baizik eta akatsak dituen eremua bakarrik.

Hondakinak sortzeko joera handia duten eremuetan aplikatuko da lan hori, batez ere, ekorketa-lan arrunten ordutegitik kanpo. Gaur egun, lan horiek arratsaldeetan eta igande eta jaiegunetan egiten dira.

Zerbitzu hori ez da nahastu behar 4. artikuluan aipatutako "puntu beltzetako" lanekin, baina mantentzeko ekortzeari atxikitako bitartekoak erabil daitezke zerbitzu horretan, beharrezkotzat joz gero.

15. art.- Espaloiak makinaz desugertzea

Lan honetan bide publikoko espaloiak eta pasealekuak zorrotz desugertu egiten dira, presiopeko urez garbitzeko sistema duten makina espezializatuak erabiliz. Makinek ur beroa eta, hala badagokio, garbigarri-depositua izango dute, bai eta hondakinak biltzean hautsa ez harrotzeko behar diren elementuak ere. Makina sartu ezin den espaloiko tokiak errematatzeko, espaloien desugertze mekanikoaren zerbitzuarekin batera eskuzko ekipo independente batek joan beharko du, ezaugarri bereko garbiketa-sistema duena.

Lehentasunez, honako hauetan egingo da ekortze-lan hori:
- Makinak pasatzeko moduko zabalera duten espaloi eta pasealekuak, oinezkoen zirkulazio handia dutenak.
- Oinezkoen aldeak.

Lan horiek, besterik adierazi ezean, **urtean behin** egingo dira, gutxienez, tratamendua onartzen duten hiriko espaloi eta pasealeku guztietan.

Kontratuan zehar, Udalak lan puntualak egiteko agindu ahal izango du, beharren arabera.

16. art..- Parkeak eta lorategi irekiak garbitzea.

Hiriko Parke eta Lorategien Udal Zerbitzuaren ardurapekoak ez diren lorategi, jolasgune eta parkeetan dauden pasealekuak, espaloiak eta egoteko guneak, hirian daudenak, eskuz edo makinaz ekortuta garbitzea da zerbitzu honen xedea.

Zerbitzu horren barruan sartzen da eremu horietan dauden paperontziak garbitzea eta biltzea, 7. artikuluan adierazitako baldintza eta maiztasun berberetan.

Lizitatzaileek esparru horiek guztiak garbitzeko plan bat proposatuko dute. Plan horrek honako hauek jasoko ditu:

- Eskuz edo makinaz ekortzea, astean sei aldiz, parke bakoitza.

Gutxienez, garbiketa-egunetako bat larunbata edo igandea izango da, eta positiboki baloratuko da asteburuetan eta jaiegunetan presentzia handiagoa izatea, leku horiek gehien erabiltzen diren egunak baitira.

Eskaintzetan, garbiketan sortutako hondakinak erretiratzeko eta garraiatzeko aurreikusitako sistema zehaztu beharko dute.

Parkeen eta lorategi-eremuen kokalekuak 4. eranskinean ageri dira.

17. artikulua.- Egoera txarrean dauden paperontziak garbitzea, ordeztea, jartzea eta konpontzea.

Enpresa esleipenduna arduratuko da egoera txarrean dauden paperontziak kendu eta ordezteaz, berriak edo kontserbazio-egoera onean daudenak jarrita.

Paperontziak kokapen berrietan birkokatzea ere sartzen da, baldintza-agirietan eskatutako zakarrontziak murrizten direnetik gehienez ere % 2ra arte.

Zerbitzu honen barruan sartzen da, baita ere, paperontziak konpontzea eta pintatzea, beharrezkoa izanez gero. Akatsa edo apurketa detektatu bezain laster konponduko da. Gainera, **hiriko paperontzi guztiak** sakon garbituko dira, barrualdetik eta kanpoaldetik, **urtean 3 aldiz, gutxienez**.

Gaur egun, 2.950 paperontzi eta gaikako 320 paperontzi daude Donostian.

Paperontzien kokalekuak 5. eranskinean ageri dira.

18. artikulua.- Orban errepikariak garbitzea.

Orban errepikariak dira isurketak, koipeak, olioak, pixak, edozein jatorritako gorozkiak, polena, likidoak, goroldioa edo antzekoak, puntualki edo aldizka gertatzen direnak, eta zikinkeria-metaketak, jatorria edozein dela ere, bide publikoa garbitzeko erabiltzen diren baliabide arrunten bidez kendu ezin direnak.

Esleipendunak jarduketa-planak aurkeztuko ditu bere ikuskapen-taldeek eremu jakin batzuetan ikusi eta beharrezkotzat jotzen dutenaren arabera, bai eta Udal Zerbitzu Teknikoak agintzen duen bakoitzean ere, jarduketa puntualak gorabehera.

Lan horietan ibilgailuak aparkatzeko aldeak sartuko dira, eta, batez ere, taxi eta autobus geltokiak, motordun zerbitzu publikoak eta espaloiak, udal teknikarien iritziz beharrezkoak diren lekuetan.

Horretarako, garbiketa-produktu egokiak erabiliko dira. Garbitu beharreko elementuak eskuilarekin garbituko dira eta, ondoren, presiopeko urez eragin, edo lizitatzaileak proposatutako beste sistema batekin urberritu.

Sostengu-elementu gisa erabiltzen diren udal ondasunak edo ondasun pribatuak ez kaltetzeko moduan egingo dira lanak.

Enpresa esleipendunak presaz arduratu eta tratatu beharko ditu galtzadetan zein espaloietan gertatzen diren eta erabiltzaileentzat arriskutsuak izan daitezkeen olio, gasolio edo bestelako substantzien isuriak. Horretarako, esleipendunak Babes Zibilak ezarritako jarraibideak bete beharko ditu (18. eranskina, Sepiolita prozedura).

19. art.- Txorko ireki eta itxiak garbitzea.

Hiriko udal-mugartean dauden txorko guztiak garbituko dira, ekortzeko taldeen bidez.

Ekortzeko talde horiei dagokie zuhaitz-txorkoen ahoetan dauden hondakin guztiak kentzea, gorotzak eta zigarrokinak ere, eta gutxieneko maiztasuna alde horri dagokion eskuzko nahiz makinazko ekortzearen maiztasun bera izango da. Zuhaitz-txorkoak estalkiz, sareez edo beste babes-elementu batzuez estalita badaude, enpresa esleipendunak, garbiketa-lanen barruan, babes-elementu hori kendu eta, txorkoa garbitu ondoren, berriro jarriko du.

Espaloiek tratamendu mekaniko hutsa badute, edo oinezkoen aldeen kasuan, baldez ureztatu ondoren garbituko dira txorkoak.

6. eranskinean jasotako **txorko eta berdegune** guztietako hondakinak eta eremu publikoan kokatutako lorategi indibidualetan utzitako hondakinak tresnarik egokienekin garbituko dira, bildu, garraiatu eta ezabatzeaz gain. Landare-sailak dauden kasuetan, manipulatu gabe garbituko dira. Garbiketa egoera txarra duen landaketa-dentsitate handiko berdeguneren bat ikusiz gero, udal arduradunei jakinarazi beharko zaie, berehala eta behar bezala justifikatuta, ezinezkoa dela garbitzea. Lorezaintzako lanik ez da egingo loretan dauden mazizoen gainean. Ez da horrelako lanik egingo, ezta ere, izurrite edo gaixotasunak dituen edo egoera begetatibo txarrean dagoen landareriaren gainean. Txorko eta berdegune guztietako hondakinen garbiketak ez du zerikusirik beste kontratu batzuen barruan egiten diren kontserbazio eta mantentze lanekin.

20. art.- Bide publikoan dauden eskailerak, lurpeko eta aireko pasabideak eta igogailuak garbitzea.

Hiriko **eskailera, lurpeko pasabide eta aireko pasabide publiko guztiak** garbituko dira, lan egokien bidez, eta gutxieneko maiztasuna alde horri dagokion eskuzko eta/edo makinazko ekortzearen maiztasun bera izango da.

Oinezkoen lurpeko eta aireko pasabideak eskuz edo makinaz ekortu behar dira, pasabidearen ezaugarrien arabera, pasabidea dagoen bideak garbitzen diren maiztasun berarekin; ahal dela, zorua makinaz garbituko da.

Tratamendu bera jasoko dute ibilgailuen zirkulazioa duten lurpeko eta aireko pasabideek. Lurpeko pasabideetan, sabai eta paretak garbituko dira sei hilean behin, gutxienez.

Morlans auzoa Lugaritz pasealekuarekin lotzen duen bidea, bidegorriak eta hura igarotzen den tunelek osatua, puntu berezi gisa tratatuko da. Garbiketa hilean behin egingo da, gutxienez, ekortzeko ekipo misto batekin: ekortzeko makina bat eta haize-makina duten bi langile.

Igogailu publikoak kanpotik zein barrutik garbituko dira, zikinkeria guztia kenduz, baita balizko eranskailuak, pintadak edo antzekoak ere. Igogailuetarako sarbideak ere modu berezian garbituko dira. Garbiketa, gutxienez, igogailua dagoen aldean egiten den eskuzko edo/eta makinazko ekorketaren maiztasun berarekin egingo da.

Eskailera eta arrapala mekanikoak ere garbituko dira alde horretako eskuzko eta/edo makinazko ekorketaren pareko gutxieneko maiztasunarekin.

7. eranskina erantsi da, garbitu beharreko elementuen zerrendarekin.

21. art..- Bide publikoan dauden azokak eta azoka txikiak

Zerbitzu hau aldizka edo noizean behin bide publikoan egiten diren merkatu ibiltariak garbitzeari dagokio, merkatu horien sustatzaileek beren gain hartutako betebeharrak gorabehera (Anoetako azoka txikia, Behemendiko azoka eta Bretxako azoka).

Zerbitzu honen helburua jendearentzako pasabideak ekortzea eta garbitzea da, saltokien barrualdeak alde batera utzita, eta eremuan sortutako hondakinak modu sailkatuan kudeatzea. Garbiketa-lanetan sortutako hondakinak instalazio horietan utziko dira, edukiontzietan, gero bilketako kamioiek jasotzeko.

Merkatuko jarduera amaitzean egingo da zerbitzua, eguerdian eta arratsaldean. Lanak merkatuaren jarduera-egunetan egingo dira, eta makina ekortzaileak eta garbigarri bereziak erabiliko dira, behar izanez gero.

8. eranskina aurkeztu da, aldizkako merkatuen ezaugarriekin.

22. art.- Kristalezko barandak, eskaileretako balaustradak, arrapala mekanikoak eta beirez inguratutako esparruak garbitzea.

Kristalezko barandak, eskaileretako balaustradak, arrapala mekanikoak eta beirez inguratutako esparruak, gutxienez, hiru hilean behin garbituko dira. Zerbitzuan sartuko da graffitiak, eranskailuak eta kristalezko paneletan pilatutako zikinkeria kentzea. San Rokeko eta Lizardiko arrapalek eta eskailera mekanikoek, duten berezitasuna dela-eta, aparteko garbiketa bat eskatzen dute, 3 hilean behin. Balaustrada eta paretaren arteko zirrikitua garbitu behar da, hain zuzen.

9. eranskina atxikita doa, garbitu beharreko elementuen zerrendarekin.

23. art.- Jaien eta bestelako ekitaldien garbiketa bereziak: azokak, kirol-ekitaldiak, kontzentrazioak, ekitaldi publikoak eta antzeko beste ekitaldi batzuk.

Urtean zehar programatutako ohiko ekitaldiak direla-eta, logikoa denez herritarren ohiko jarduerari dagokiona baino zikinkeria-indize handiagoa biltzen den eremuak garbitzen dira zerbitzu honen barruan, betiere jaien edo ekitaldien antolatzaileek okupatutako esparruaren hondakinak garbitzeari eta biltzeari dagokionez dituzten betebeharrak gorabehera.

Bide publikoko esparru horiek ekitaldi bakoitza amaitu bezain laster garbituko dira, edo, beharren arabera, hala dagokionean.

Lizitatzaileek beren eskaintzetan lan-plana proposatuko dute, erabili beharreko ekipo desberdinak azalduta, giza baliabide eta baliabide materialez hornituak, eta erabili beharreko ekipo-kopurua ezarrita, eman beharreko zerbitzuen tamainaren arabera.

Edukiontzi-sorta bat ere izango dute, 240-1.100 litroko edukierakoak, bai errefusa-motako hondakinetarako, bai hondakin birziklagarrietarako, horrelako gertaeretan jarri eta erretiratzeko. Edukiontziak hutsik, garbi eta zigilatuta entregatu beharko dituzte, ekitaldietan erabiltzeko.

Orientazio moduan, 10. eranskina atxiki da, 2023an parte hartu behar izan den gertakari/ekitaldien zerrenda jasotzen duena.

24. artikulua.- Pintadak garbitzea eta kartelak, pankartak, banderatxoak, eranskailuak, iragarkiak... kentzea.

Pintadak garbituko dira izaera publikoko elementu guztietan (eraikinak, hormak, paretak edo antzekoak) eta, oro har, Udaleko elementu guztietan, eskulturetan izan ezik.

Pintada politikoak, mehatxagarriak eta iraingarriak eraikin partikularretako fatxadetatik ere kenduko dira, betiere Udalaren Zerbitzuak hala eskatzen badu eta Hiri Zerbitzuen Departamentuak ezartzen dituen jarduketa-irizpideei jarraituz; hauek, nolanahi ere, kontratuaren iraunaldian zehar aldatu ahal izango dira.

Garbiketa egiteko, beti kontuan hartuko dira fatxadak eraikitzeko erabilitako materiala (harri naturala edo artifiziala, marmola, adreilua, zementua edo antzekoa) eta pintadak osatzen dituzten elementu kimikoak. Horretarako, fatxadei kalte egiten ez dieten produktu ez oso urratzaileak erabiliko dira. Gainera, sostengu-elementu gisa erabiltzen diren udal ondasunei edo ondasun pribatuei kalte ez egiteko moduan egingo dira lanak.

Bestalde, lan horietan guztietan eraikinaren estetika mantentzeko ahalegina egingo da.

Kartelak kentzeari dagokionez, mota guztietako kartelak, banderatxoak, pankartak, iragarkiak, eranskailuak edo antzekoak kentzekoak izango dira, edukia edozein dela ere, bai atxikita daudenak, bai elementu publiko guztietatik zintzilikatuta daudenak (eraikinak, hormak, paretak, hiri-altzariak, adibidez), bai bide publikora ematen duten elementu pribatuetatik zintzilikatuak. Makina edo bitarteko egokiak erabiliz kenduko dira, altzairuzko eskuilekin eskuilatzea eta fatxadei kalte egin diezaieketen erremintekin marruskatzea saihestuz.

Presio-sistemak, ur-depositoa eta fatxadak kaltetzen ez dituzten material urratzailea proiektatzeko prozedura tekniko aurreratuak dituzten furgonetetan muntatutako bi ekipamendu beharko dira. Aipatutako prestazioak hobetzen edo osatzen dituzten ibilgailu eta ekipo alternatiboekin ere eman ahal izango dute zerbitzu hori.

Kartelak kendu ondoren, lan egin den eremutik hurbil dagoen aldea ekortu egingo da eta garbiketan sortutako paperak jasoko dira.

Udalaren aginduz kendu diren elementuak enpresa esleipendunak gordeko ditu, ondoren beren jabeei itzultzeko edo udal-aginduen arabera ezabatzeko.

Pintadak edo pankartak berehala ezabatuko dira, horien berri izan bezain laster, baldin eta bitartekoak eskuragarri badaude, eta gehienez ere 48 orduko epean.

Enpresa esleipendunak beharrezkoak diren materialak izan beharko ditu, hala nola desugertzaileak, pinturak, antigrafitiak eta pintadak ezabatzeko behar diren produktu eta baliabide guztiak.

Zerbitzu hori emateko, lizitatzaileak lan horietan erabili behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak proposatuko ditu, bai eta horiek antolatzeko modua ere. Sostengu-elementu gisa erabiltzen diren udal ondasunak edo ondasun pribatuak ez kaltetzeko moduan egingo dira lanak.

25.art.- Haurrak dibertitzeko gailuen garbiketa.

Garbiketa plazan, kaleetan eta hiriko parke irekietan dauden haurrentzako dibertimendu guztietako zoruak eta zoladurak barne hartuko ditu.

Dibertimentu gehienek gomazko lurzorua edo zoladura gogorra dute, eta bideak edo parkeak garbitu edo ekortzeko aurreikusitako lanen barruan garbituko da.

Hor sartzen dira, halaber, jolasetako egiturak aldizka garbitzea, eta, gutxienez, hiru hilean behin dibertimendu guztien graffitiak garbitzea. Horretarako, produktu egokiak erabiliko dira, jolasetako elementuei erasotzen edo kalte egiten ez dietenak eta osasunerako toxikoak ez direnak. Maiztasun horrekin berarekin, zoladurak intentsitate handiagoz garbituko dira, zurrusta-bitarteko mekanikoen bidez, eta, betiere, hondakinak pilatzeagatik edo beste arrazoi batzuengatik beharrezkoa den guztietan.

Badira zenbait parke –gaur egun Ulian eta Aieteko jauregian–, hareazko putzuak dituztenak, eta horietan tratamendu espezifikoa behar da. Zerbitzu honek, gutxienez, honako zeregin hauek bete beharko ditu:

- Egiturak eta jolasak ekortzea, ahal dela, harea eta zabor guztiak kentzeko.
- Harea arrastelatzea, gainazalean dauden zaborrak eta hareaz bestelako elementuak kentzeko.
- Goldatzea, 30 eta 40 cm arteko sakoneran motor-errotorea erabiliz, harea aireztatzeko eta harrotzeko.
- Beste arrastelatu bat, harea berdintzeko eta goldatzean agertu diren zaborrak kentzeko.
- Aldian-aldian harea ekartzea, maila on bati eusteko. Udalak hornituko du hondarra.
- Lanaren aldizkakotasuna: ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean hamabostean behin egingo da lan hori, eta urteko gainerako hilabeteetan, hilean behin; eta nolanahi ere, kristalak edo bestelako hondakinak badaude.

11. eranskina atxikita doa, garbitu beharreko elementuen zerrendarekin.

26. artikulua.- Kirol-instalazio irekien garbiketa.

Kirol Patronatuak kudeatutako udal instalazioak dira, hala nola kirol-pista, pilotaleku edo beste instalazio batzuk, sarbide librea dutenak eta kirol erakunde edo elkarte pribatu baten edo Kirol Patronatuaren beraren mantentze eta/edo garbiketa lanen mende ez daudenak.

Kirol-pistak, pilotalekuak edo beste instalazio batzuk garbituko dira, aurreikusitako kirol-jarduerak egiteko beharrezkoa den guztietan, eta, gutxienez, 7 egunean behin. Honako lan hauek egingo dira:

- Pistak, harmailak eta instalazioetako elementu guztiak ekortzea.
- Baldez ureztatzea.
- Saretak eta hustubideen gainazala garbitzea.
- Ekorketa-produktuak kentzea.

12. eranskina atxikita doa, garbitu beharreko elementuen zerrendarekin.

27. art.- Urmaelak eta iturri apaingarriak garbitzea.

Atal honetan bi garbiketa-mota bereiziko dira.

Lehenengoa, flotatzaileak eta hondoko saretetan utziak kentzea izango da, ponpek zirkuitu itxian normaltasunez funtzionatzea eragozten baitute. Gutxieneko maiztasuna alde horretako eskuzko ekorketaren eta/edo makina bidezko ekorketaren maiztasunaren berdina izango da.

Bigarrena, urmaelen eta apaingarrien hondoa garbitzea izango da. Zerbitzu hori urmaelen eta iturri apaingarrien mantentze-zerbitzuarekin batera egingo da, horiek baitira hustu eta beteko direnak. Garbiketa mota hori, gutxienez, lau hilean behin egingo da.

Garbiketa horiek gaur egun dauden urmael eta iturri apaingarriei dagozkie, baita kontrataren iraunaldian eraikitzen direnei ere.

Kalkutako Teresa plazako urmaelak badu berezitasun bat: galtzada-harrien artean hazten den landaredia maiz garbitu behar da.

13. eranskina atxikita doa, garbitu beharreko elementuen zerrendarekin.

28. art.- Txakurren parkea garbitzea.

Gregorio Ordóñez kalean txakurrentzako parke bat dago, hareazko hobia duena, eta bertan tratamendu espezifikoa behar da. Zerbitzu honek, gutxienez, honako zeregin hauek bete beharko ditu:

- Harea arrastelatzea, gainazalean dauden zaborrak eta hareaz kanpoko elementuak hilean behin kentzeko.
- Goldatzea, 30 eta 40 cm arteko sakoneran motor-errotorea erabiliz, harea aireztatzeko eta harrotzeko, hilean behin.
- Beste arrastelatu bat, harea berdintzeko eta goldatzean nahiz bahetzean agertu diren zaborrak kentzeko.
- Aldian-aldian harea ekartzea, maila on bati eusteko. Udalak jarriko du hondarra.
- Harea desinfektatzea produktu bakterizida/fungizidekin, mikroorganismoak prebenitzeko eta kontrolatzeko, 6 hilean behin.

14. eranskina atxikita doa, garbitu beharreko elementuen zerrendarekin.

29. artikulua.- Urumea ibaia garbitzea.

Urtero, garbiketa puntual bat egingo da, 8 egun iraungo duena, Urumea ibaiak arrastatutako hondakinak erretiratzeko. Izan ere, Donostiako aldean, hondakin-mota desberdinak uzten dira, hala nola hesiak, somierrak, orgak, aulkiak, eta abar.

Lan hori 2 taldetan antolatuko da, eta talde bakoitza honako hauek osatuko dute:

- 3 langile uretan.
- 2 langile goian, poleen ondoan.
- Peoi kargatzaile/gidari bat tamaina handiko hondakinak garraiatzeko, bi lantaldeek partekatua.

30. artikulua.- Hildako animaliak bide publikoetatik kentzea.

Enpresa esleipendunari dagokio animalia hilak kentzeko tratamendua kudeatzea eta bere gain hartzea. Zerbitzu egokiei kentzeko beharra jakinarazi eta berehala kenduko ditu.

31. artikulua.- Zerbitzuetatik datozen hondakinak biltzea eta tratatzeko lekura eramatea.

Lizitatzaileak arestian deskribatutako zerbitzu bakoitzean jasotako bilketa eta garraioari buruzko azterlan xehatua proposatuko du.

Zerbitzu osoko hondakinak jasotzeko, estrategikoki kokatutako edukiontziak edo kutxak erabiliko dira, eta ibilgailu egokiak erabiliko dira horiek biltzeko eta husteko. Edukiontziak eta kutxak egunero hustuko dira eta, hala badagokio, kendu egingo dira. Aldizka ere garbituko dira. Esleipendunak hartu beharko du bere gain hondakinen kudeaketa, indarrean dagoen legeriaren arabera, bai eta horren kostua ere.

Zerbitzu honen barruan sartzen da, udaberrian eta udan, Uliako aparkalekuan 12 m³ (min.) inausteko kutxak jartzea eta hustea. Enpresa esleipendunak inausketarako kutxa eskuratu beharko du.

32. artikulua.- Hondakin "desegokiak" eta/edo "arriskutsuak" biltzea.

Esleipendunak bide publikoan dauden hondakin guztiak bildu eta kudeatu beharko ditu, arriskutsuak direnak barne, hondakin bakoitzaren arau espezifikoetan ezarritako prozedura eta protokoloak betez eta kudeatzaile baimenduen eskura jarriz; gastuak esleipendunaren kontura joango dira. Zerbitzu horretan sartzen da zerbitzuan jaso daitezkeen eta, indarrean dagoen legeriaren arabera, tratamendu espezifikoa behar duten material berezi, inpropio eta arriskutsuen tratamendua.

Amiantoa duten hondakinen kasuan, esleipendunak baimendutako kudeatzaile baten bidez erretiratu beharko ditu, 15 eguneko epean abisua jasotzen duenetik.

Baldin eta Udalak hondakinak kokaguneetatik edo antzekoetatik kendu behar baditu, ezohiko ekitaldiak garbitu behar baditu edo antzeko ekintzak egin behar baditu, baldin eta kontratuaren arduradunek uste badute eskura dauden baliabideekin ezin direla bildu, esleipendunak egingo ditu lan horiek. Urtean 30.000 €esleituko dira gehienez, eta Udalak aurrekontua onartu ondoren ordainduko zaizkio esleipendunari.

33. art.- Garbiketa indartzeko zerbitzuak.

Elurretarako eta/edo Izotz Handietarako Plana.

Enpresa esleipendunak 16. eranskinean aurreikusitako jarduketa-planari jarraitu beharko dio, bai eta elurteak eta/edo izozte handiak gertatzen direnerako etorkizunean izan ditzakeen eguneratzeei ere. Horretarako, adierazitako antolamendua bete beharko du, eta berariazko lanak egiteko baliabideak izango ditu, hala nola elurra eta izotza urtzeko produktuak barreiatzeko gailuak, elurra kentzeko makinak eta antzekoak.

Gaur egun Udalaren jabetzakoak diren eta enpresa esleipendunaren esku jarriko diren baliabideak honako hauek dira:

25 unitate	Gatza barreiatzeko eskuzko orga
19 unitate	Elurra kentzeko eskuzko palak
1 unitate	Paladun kamioia MAN TGM 4x4
1 unitate	Gatz-barreiagailua, MAN TGM 4x4 kamioira akoplagarria
1 unitate	Gatz-barreiagailua, Cabstarrera akoplagarria
1 unitate	Gatz-barreiagailua, Amplirollera akoplagarria
1 unitate	Gatz-barreiagailua, Toyota Hiluxera akoplagarria
1 unitate	Toyota Hiluxera akoplatzeko moduko pala
7 unitate	Kale-garbigailura akoplatzeko moduko pala
1 unitate	Gatz-barreiatzailea, kutxa irekiko kamioira akoplagarria

34. artikulua.- Aparteko garbiketak eta lanak

Lizitatzaileek brigada bat eskaini beharko dute aurreko zerbitzuetan jaso ez diren aparteko lanak eta garbiketak egiteko. Udalak zehaztuko ditu jarduteko irizpideak, puntualak zein programatuak.

Garbiketaren barruan, lan horiek mota askotakoak izango dira, hala nola:

- Ekaitzen ondorioak garbitzea
- Legez kanpoko asentuak kentzea
- Lur-jausien ondorioz egin beharreko aparteko garbiketak
- N1 "eskailera txikiak" garbitzea
- Antiguako tunela garbitzea
- Orubeak eta urbanizatu gabeko eremuak garbitzea
- Martutene pasealekuko 118-120 zenbakietako kanaleta garbitzea.
- Bide publikoan egon behar ez duten hondakin hauek kentzea, egutegi honi jarraituta:

Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Easo, 43 2º | Tel. 010 - 943481038 | udala_hirizerbitzuak@donostia.eus www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

SELURDON					
ASTELEHEN-ETAN	ASTEARTE-ETAN	ASTEAZKEN-ETAN	OSTEGUNETAN	OSTIRAL-ETAN	LARUNBAT-ETAN
KRISTALA	OBRA-HONDAKINAK	KRISTALA	OBRA-HONDAKINAK	KRISTALA	PALETAK
INAUSKETA	KOMUNAK	ASENTUAK	ASENTUAK	KOMUNAK	

Brigada hori, gutxienez, 4 langilek osatuko dute, guztiak ere ahalik eta balio anitzekoenak izanik, gidatzeko gaitasuna dutenak eta edozein kategoriatako lanak egiteko prestatuta daudenak (peoitik 1. mailako ofizialera). Honako hauek nahi ditugu, eta horrela baloratuko dira; aldakortasuna, balio-aniztasuna, ordutegi-malgutasuna eta, oro har, brigadaren jarduteko gaitasun eta moldakortasun handiagoa errazten duen edozein baldintza.

Materialak, erremintak eta tresnak kargatzeko gaitasuna duen garraio-ibilgailu bat izango du, bigarren erabilerakoa izan daitekeena (2. eranskinean, «Kontratu berrian erabiliko diren egungo zerbitzuko ibilgailuen zerrenda» izenekoan, Selurdon izeneko balio anitzeko kamioi bat ageri da, zerbitzu horri atxikita egon dena), baina kontratako beste ibilgailu eta makina batzuekin ere jardun ahal izango du, baita alokatuta ere.

Brigada horren jarduketa-plana astero ezarriko da, Udaleko eta enpresa esleipenduneko langileen artean adostuta, baina, plana gorabehera, une bakoitzean diren aparteko baldintzak kontuan hartuko dira.

Brigada hori puntualki indartu ahal izango da, hala eskatzen duen beharren bati erantzuteko.

Ezin izango da brigada honetako langilerik hartu baja, absentismo nahiz oporrei erantzuteko, ez eta aurreko artikulu guztietan zerrendatutako zerbitzuetan sartzen diren lanak egiteko ere. Elurte Planean, berriz, brigadako langileak hartu ahal izango dira.

35. art.- Garbiketa berezia, hostoen erorketa dela-eta.

Hostoak erortzeko garaian, Ekorketa Mistoaren zerbitzua behar bezala eman behar izaten da, urteko sasoi jakin batean. Urtearen arabera, aldi hori aurreratu edo atzeratuko da, eta iraupen luzeagoa edo txikiagoa izango du; beraz, errefortzu-taldeak izango dira. Ekorketa Mistoaren ohiko zerbitzuek betiko moduan jardun ahal izateko, ohikoak ez diren bitartekoak ere aplikatu beharko dira.

Hostoa erortzeak ondorio garrantzitsuak ditu eremu hauetan:

- Pio Baroja eta Bera Berako kirol plaza (Aiete auzoa)
- Isabel II.aren hiribidea, Felipe IV. hiribidea, Parke Politeknikoa eta Bizkaiko pasealekua (Amara Berri)
- Zumalakarregi hiribidea, Tolosa hiribidea eta Zubimusu eta José María Sert parkeak (Antigua auzoa)
- Ategorrieta hiribideko alde batzuk, Jose Elosegi Alkatearen hiribidea, eta Ulia pasealekua (Ategorrieta-Ulia auzoa), Gaiztarro eta Bidebieta-La Paz aldearen mendebaldean (Bidebieta auzoa)
- Foruen pasealekua eta Gernikako Arbolaren pasealekua (Erdialdea)
- Boulevard Zumardia (Parte Zaharra)
- Urumea pasealekua, Bidasoa ibaia, Baztan eta Karmengo Andra Mariaren goiko aldeko aparkalekua (Egia)
- Zarautz hiribidea (Ibaeta)
- Mons pasealekua eta Luistarren ingurua (Intxaurrondo)
- Begiristain Doktorearen pasealekua, ospitaleen parean (Miramon Zorroaga)

Lizitatzaileek atal honetarako plan berezi bat eskaini beharko dute eta, informazioarekin batera, zerbitzu gehigarriak banatu beharko dituzte mailen eta maiztasunen arabera, eremu bakoitzean. Bideak garbitzeko zerbitzuan

inplikatutako faktoreak –proposatutako lanen dimentsionamenduan eragina dutenak– aztertuko dira, zehazki Ekorketa Mistoaren zerbitzuan inplikatutakoak,

IV. KAPITULUA.- LANGILEAK

36. artikulua.- SPKLren 130. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-organoak, administrazio-klausula berezien agirien V. gehigarriaren bidez, subrogaziorako eskubidea izan dezaketen langileei buruzko informazioa eta langile horien kontratuen baldintzak ematen ditu. Hori guztia, neurri horrek ekar ditzakeen lan-kostuen ebaluazio zehatza egin ahal izateko.

Kontratazio-espediente honetan horri buruz dagoen informazioa kontratu honen aurreko kontratista esleipendunak eman du (2014/028 esp.).

37. artikulua.- Langileen dimentsionamendua

Enpresa lizitatzaileek kontratuaren xede diren zerbitzuei buruz egindako azterlanen emaitza gisa, egin beharreko lan bakoitzean beharrezkotzat jotzen dituen plantilla-aurreikuspenen proposamen xehatua azalduko du, honako banakapen honekin:

- Lanak egiteko behar diren langileen lanbide-profila honako hau izango da:

a) Peoia
a) Peoi gidaria
b) Peoi espezialista
c) Peoi makinista
d) Gidaria
e) Langileen burua
f) Arduraduna
g) Indarrean dagoen hitzarmenean jasotako beste kategoria batzuk.

- Oporrak, laneko absentismoagatiko bajak, gaixotasunak, istripuak, ordu sindikalak eta behar bezala eta berehala justifikatutako beste arrazoi batzuk izaten direnean, lanak gauzatuko direla bermatzeko behar diren langileak jarri beharko dira. Ordezkapenak lanpostuari edo goragoko lanpostu bati esleitutako kategoria bereko langileekin egingo dira.

Era berean, zerbitzuek ondo funtzionatu dezaten zerbitzuetara esleitutako gainerako langile guztien zerrenda zehaztua aurkeztu beharko dute, honako banakapen honen arabera.

- Zuzendaritza, teknikariak eta zerbitzuen zaintzaileak.
- Administrazioa
- Kalitate-kontrola
- Lantegiko langileak
- Biltegiko langileak
- Beste zerbitzu batzuk.

38. art. Lantaldeak dimentsionatzea

Lizitatzaileek honako hauek xehetasunez definituko dituzte, beren eskaintzetan, aurreko zerbitzu bakoitzerako.

- Zer kaletan aurreikusten da zerbitzu-mota bakoitza egitea.
- Eremu bakoitzeko aldizkakotasuna.
- Lantaldeak eratzea eta haiek hautatzeko erabiltzen diren irizpideak.
- Egin beharreko lan-kopuru osoak, zeregin bakoitzean tratatu beharreko luzeraren edo azaleraren arabera.
- Lantalde bakoitzak lan bakoitzerako egiten duen lan-kopurua.
- Erabilitako lantaldeen errendimendua.
- Talde bakoitzeko langileen ordutegia
- Lan bakoitza egiten duen talde-kopuruaren kalkulua, aurreko datuen arabera definituta.
- Oro har, proposamenak hobeto definitzen eta ulertzen laguntzen duten datu guztiak.

39. art. Kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratuaren hasieran zegoen plantilla aldatu behar den guztietan, enpresa esleipendunak ahalik eta lasterren eman beharko dio Udalari horren berri, aldaketaren arrazoia edozein dela-ere: erretiroa, heriotza, borondatezko baja, kaleratzea, baliaezintasun iraunkorra, e.a.

Art. 40. art. Udalak ez du harreman juridikorik, lanekorik nahiz bestelakorik izango enpresa esleipendunaren langileekin, ez kontratuaren indarraldian, ez amaieran, eta esleipendunaren kontura izango dira kontratu hau dela-eta sortzen diren betebehar, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

Langile guztiek behar bezala identifikatuta egon beharko dute, gutxienez, txartel pertsonal baten bidez. Txartel horretan, langilearen argazkia, kode pertsonala eta zer zerbitzutakoa den azalduko dira.

41. art. Enpresa esleipendunak nahitaez bete beharko ditu, edozein absentismo-mota dela-eta, hutsik gelditzen diren langile operatiboen lanpostu guztiak, arrazoia edozein dela ere: gaixotasuna, istripua, oporrak, jaiegunak (jaiegunean lan egin behar bada).

42. art. Enpresa esleipendunak behar bezala aseguratuta izan beharko ditu bere ardurapeko langile guztiak, eta erantzukizun zibileko aseguruak egin beharko ditu, aurreikusitako lanak egitean hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteak estaltzeko.

43. art. Zerbitzuetako langileek uniformea eraman beharko dute. Uniforme-mota desberdina izango da udan eta neguan, eta Udalak onarpena eman beharko du.

Langileentzako jantzien kopurua eta kalitatea hitzarmen kolektiboetan adostutakoaren araberakoak izango dira beti; inola ere ez dira izango urteko bi uniforme baino gutxiago, bata negukoa eta bestea, udakoa.

Janzkeran, garbitasunik, txukuntasunik eta uniformetasunik ez badago, ardura enpresa esleipendunarena izango da. Enpresaren ardura izango da, baita ere, langileek auzokoei begirunerik ez izatea edo tratu txarra ematea.

V. KAPITULUA.- MAKINERIA ETA MATERIALA

44. art.- Garbiketa-zerbitzuen eskura jarritako baliabideak ahalik eta ondoen aprobetxatze-aldera, Udalak ibilgailuen eta makinen zerrenda bat egin du (2. eranskina, "Kontratu berrian erabiliko diren egungo zerbitzuko ibilgailuen zerrenda"). Aurreko kontratutik zetozen eta erabiltzeko egoera onean daudenez, bizitza erabilgarri luzea aurreikusten zaie, eta enpresa esleipendunak erabili ahal izango ditu kontratuan. Ibilgailu horiek Udalaren titulartasunekoak izango dira, baina erabileratik eratorritako gastuak (mantentze-lanak, aseguruak, ikuskapenak...) enpresa esleipendunaren kontura joango dira.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Easo, 43 2º | Tel. 010 - 943481038 | udala_hirizerbitzuak@donostia.eus www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Udalak, bestalde, ibilgailu eta makinen beste zerrenda bat aurkeztu du (3. eranskina «Libreki erabiliak ahal izango diren egungo zerbitzuko ibilgailuen zerrenda»). Hauek ere aurreko kontratutik datoz, eta lizitatzaileek erabili ahal izango dituzte, baliagarri zaizkiela uste badute.

Lizitatzaileek beren eskaintza oinarritu ahal izan dezaten, bisitak programatuko dira, materiala ezagutu dezaten. Egungo egoerari, ezaugarriei eta aurreikusitako erabilera-denborari buruz egiten dituzten balorazioak kontuan hartuta, aurkezten duten inbertsio-planean kontuan hartu ahal izango dituzte, nahi izanez gero.

Lizitatzailearen eskaintza dela-eta ibilgailuak hartzearen ondoriozko titulartasuna aldatzeko kostuak enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

Bisita horiek egin nahi dituzten enpresek Administrazio Klausula Partikularren Agirietako Ezaugarri Koadroaren 31. epigrafean zehaztutako moduan jardun beharko dute.

45. art.- Porter-motako ibilgailu txiki eta arinek, berriek, guztiz elektrikoak izan behar dute.

46. art.- Lizitatzaileek, gutxienez, lau espaloi-ekorgailu berri eskaini beharko dituzte, %100 elektrikoak, eta 1,8 eta 2,2 m³ bitarteko tobera-bolumen gordina.

47. art.- Lizitatzaileek gutxienez espaloi % 100 elektrikoak baldeatzeko bi makina eskaini beharko dituzte, ura biltegiratzeko 1800 eta 2100 litro arteko edukiera dutenak. Ibilgailuaren propultsiorako bateriak litiozkoak eta 48 voltekoak izango dira.

48. art.- Adierazitako ahalmen-maila duten ekorgailu elektriko berriek, gutxienez, honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

Erreferentzia eta neurketa guztiek UNE 15429 araua bete beharko dute.

- <u>Ekorgailuak, 1,8 eta 2,2 m³ bitarteko tobera-bolumen gordina dutenak</u>

- 3 eskuila dituzten ekorgailuak.
- Txasis artikulatua edo direkzio artikulatua.
- Xurgatze-potentzia, gutxieneko aire-fluxua turbina 2300 rev/min abiaduran: 1,35 m³/s.
- Baterien gutxieneko edukiera ontziratua: 54 Kw/h-ko Li-Ion.
- Baterien autonomia: 8 ordu.
- 4 izarreko PM10 eta PM 2.5 partikulen emisioen ziurtagiria.
- Soinu-potentziaren maila, 2000/14/EC:LWAren arabera < = 92 dB (A)
- Xurgatzeko tutua zuzena, ukondo eta bihurgunerik gabea
- Xurgatze-aho flotatzailea.

- <u>Ekorgailuak, 4,8 eta 6,5 m³ bitarteko tobera-bolumen gordina dutenak</u>

- 3 eskuila dituzten ekorgailuak
- Xurgatze-potentzia, gutxieneko aire-fluxua turbina 2300 rev/min abiaduran: 2 m³/s.
- Baterien gutxieneko edukiera ontziratua: 130 Kw/h-ko Li-Ion.
- Baterien autonomia: 8 ordu.
- 4 izarreko PM10 eta PM 2.5 partikulen emisioen ziurtagiria.
- Soinu-potentziaren maila, 2000/14/EC:LWAren arabera < = 92 dB (A) ren arabera

Eremu estuetarako, ekorgailu txikiagoak eskaini daitezke.

49. art. Eskaintzen diren diesel ekortzeko makina berriek, gutxienez, honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

Erreferentzia eta neurketa guztiak UNE 15429 Arauaren arabera eskaini beharko dira.

- Ekorgailuak, 1,8 eta 2,2 m³ bitarteko tobera-bolumen gordina dutenak

- 3 eskuila dituzten ekorgailuak
- Xurgatze-potentzia, gutxieneko aire-fluxua turbina 2300 rev/min abiaduran: 1,35 m³/s.
- 6 euro-motorra
- 4 izarreko PM10 eta PM 2.5 partikulen emisioen ziurtagiria.
- Soinu-potentziaren maila, 2000/14/EC:LWAren arabera < = 97 dB (A) ren arabera
- Xurgatzeko tutua zuzena, ukondo eta bihurgunerik gabea
- Xurgatze-aho flotatzailea.

- Ekorgailuak, 4,5 eta 6,5 m³ bitarteko tobera-bolumen gordina dutenak

- 3 eskuila dituzten ekorgailuak
- Xurgatze-potentzia, gutxieneko aire-fluxua turbina 2300 rev/min abiaduran: 2 m³/s.
- 6 euro-motorra
- 4 izarreko PM10 eta PM 2.5 partikulen emisioen ziurtagiria.
- Soinu-potentziaren maila, 2000/14/EC:LWAren arabera < = 102 dB (A) ren arabera

Eremu estuetarako, ekorgailu txikiagoak eskain daitezke.

50. art.- Lizitatzaileek, beren eskaintzetan, aditzera emango dute zer material higikor erabiliko duten zerbitzuetan, eta argi eta garbi adieraziko dute zer jotzen den beharrezko materialtzat zerbitzuak behar bezala emateko, eta zer erreserbako materialtzat –hau da, zerbitzuko materialak ordezteko erabiliko dena, matxurarik izan delako edo noizbehinka errefortzua behar dela-eta–.

Enpresa esleipendunak erreserbako ibilgailu kopuru jakin bat izan beharko du Zerbitzurako; kopuru hori, gutxienez, ohiko zerbitzurako erabili beharreko ekipoen %20 izango da, eta ez da, inola ere izango, mota bakoitzeko 1 baino gutxiago.

Enpresa esleipendunak une oro eduki beharko du zerbitzuak behar bezala emateko behar den materiala.

51. art.- Erabili beharreko material mugikorra zerbitzuaren ezaugarrietarako eta hiriaren beharretarako egokiena izango da. Positiboki baloratuko da beren lan-ezaugarriengatik zarata egiten duten ibilgailuen eta makinen soinu-emisioak murriztea. Berdin eskainitako ibilgailu berrien erregai-kontsumoari eta CO2 isuriei buruzko informazioari dagokionez ere.

Aukeratzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

1.- Ekorketa-produktuak biltzeko erabiliko diren ekipoak hiriaren ezaugarrietarako egokienak izango dira, ahalik eta etekin handiena lortzeko kosturik txikienarekin.

Bere diseinuagatik, materiala erraz garbitzeko modukoa izan behar du, bai barrutik, bai kanpotik. Garbiketa-lana egunero egin beharko da ibilgailuaren kanpoaldean eta barrualdean, eta, astero, kabinaren barrualdean eta gainerako ataletan.

Lan desberdinetan langileak garraiatzeko, laneko eta zirkulazioko segurtasun-arauak zorrotz beteko dira.

Ekorketa-produktuak biltzeko ibilgailuak berariaz diseinatuta egongo dira lan hori ahalik eta modu eraginkorrenean egiteko.

2.- Animalia hilak biltzen dituen ibilgailuak garabi bat izango du, gutxienez 1.500 kg maneiatzeko ahalmena duena. Garabi horri beste elementu osagarri batzuk gehitu ahal izango zaizkio, beste lan batzuk egin ahal izateko, hala nola hondakindegiak garbitzea, material astunak kargatzea, etab.

3.- Espaloiak eta galtzadak makinaz ekortzeko eta baldez ureztatzeko, bai eta urez garbitzeko ere, erabiliko diren ibilgailuek maniobragarritasun handia izan behar dute, biratzeko erradio txikiak izan behar dituzte eta zintarriak igotzea eta jaistea errazten duten sistemak edo ezaugarriak izan behar dituzte. Pisua dela-eta, ez dio kalterik egingo zoladurari.

Ekorketan erabiltzen direnek ardatz bertikaleko eskuilak eta ureztatze-sistema izango dituzte, hautsa ez harrotzeko.

Galtzadak baldez ureztatzeko eta ureztatze-ekipoek baldez ureztatzeko ahoko orientagarriak izango dituzte, eta orburu zulodunak, ureztatzeko, bai eta ur-presio eraginkorrak lortzeko behar diren ponpatze-mekanismoak ere. Haien ahalmena lan eta toki bakoitzerako egokiena dena izango da.

Makinaz baldez ureztatzeko, ur-presio egokia lortzeko behar diren mekanismoak dituzten ekipoak erabiliko dira. Ura kanporatzeko bastidoreak orientagarriak izango dira, eta aurrealdean edo zabaleran murriztu ahal izango dira.

4.- Lanak zaintzeko, enpresa esleipendunak ibilgailu arinak izan beharko ditu, egin beharreko lanen ezaugarrietara egokituta. Lur orotako ibilgailu bat izango dute, gutxienez, leku malkartsuetatik ibiltzeko.

5.- Ibilgailu guztiek GPS finkoa izango dute, une oro lokalizatu ahal izateko, eta enpresa esleipendunak aplikazio bat jarriko du udal zerbitzu teknikoen eskura, lizentzia eta guzti, ibilgailuen mugimenduak kontrolatzeko. Aplikazio horri esker, ibilgailuak lokalizatu ahal izango dira, bai momentuan, bai geroago, eta haien ibilbidea ere ikusi ahala izango da.

6.- Zerbitzua emateko erabiltzen diren edukiontziak erraz garbitzeko modukoak izango dira. Edukiontziak 7 egunean behin garbitu eta desinfektatu beharko dira.

7.- Eskuz ekortzeko orgak eta ekipo txikiak gurpil pneumatikodunak izango dira, eta poltsak eramango dituzte, edukiontzira edo kamioira hustean, ezer isuri ez dadin.

8.- Edateko ura erabiltzen duten ekipoek (eskuzko mahukak, baldeagailuak, zisternak, etab.) ur-kontsumoa neurtzeko kontagailu bat izango dute. Ur Zerbitzu Teknikoak homologatu eta baliozkotu beharko ditu kontagailuak. Hilero, parte bat egingo da, eta, bertan, bitarteko bakoitzaren kontsumo indibiduala adieraziko da, bai eta guztizkoa ere. Hornidura-puntu edo sektoreak ere markatuko dira, eta dena Udal Zerbitzu Teknikoei emango zaie.

52. art. Enpresa esleipenduna arduratuko da zerbitzuak ematen diren bitartean eta lantokietara joatean zarata handiegirik ez sortzeaz.

Aire zabaleko jardueretan, oro har, erabiltzen diren makinek aire zabalean erabiltzen diren makinen soinu-emisioei buruz indarrean dagoen legeria bete beharko dute, eta, bereziki, hala badagokie, aire zabalean

erabiltzen diren makina jakin batzuek ingurumenean sortzen dituzten soinu-emisioak arautzen dituen 2002ko otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretua eta arau osagarriak bete beharko dituzte.

53. art.- Bide publikoan lan egiten duten ibilgailuak behar bezala ikusteko moduan egongo dira, eta gidariarekin konektatuta lan egiten duten langileentzat nahitaezkoak diren segurtasun-sistemak izango dituzte.

Bide publikoan lan egiten dutenek behar diren seinaleztapen-ekipoak izango dituzte, hobeto detektatuak izateko eta oinezkoek eta ibilgailuek arriskurik ez izateko.

Ibilgailuen errotulazioa Udalaren identifikazio-eskuliburuaren araberakoa izango da.

54. art.- Eskainitako material guztia zehatz-mehatz deskribatu beharko dute lizitatzaileek, eta planoak, krokisak, eskemak, argazkiak eta beharrezkotzat jotzen dituzten datu guztiak aurkeztu beharko dituzte, ahalik eta ondoen ezagutzeko materiala. Materialak exijitzeko moduko legezko baldintzak bete beharko ditu, eta, hala badagokio, dagokion CE marka eraman beharko du.

55. art.- Kontratistak zerbitzu horietarako erabiltzen diren material eta ibilgailu guztien mantentze prebentibo eta zuzentzailerako plan bat aurkeztu beharko du nahitaez. Plan horretan, koipeztatzeak, zerbitzuak eta aldizkako egiaztapenak sartuko dira, egokitzat jotzen duen maiztasunarekin.

56. art.- Kontratuaren amaieran, eskainitako material eta makina guztiak Udalaren jabetzakoak izango dira.

57. art.- AKPAetan kontratua gauzatzeko aurreikusitako epea amaitzean, material eta makina guztiak amortizatutzat joko dira.

58. art.- Industria eta Energia Zuzendaritzak aldian behin ikuskatu behar dituen ibilgailu automobil guztiak –arinak, bitartekoak zein astunak–, indarrean dagoen araudiaren arabera ikuskatuko ditu. Erakunde horrek ematen dituen parteen kopia bat bidaliko zaio Zerbitzuaren Udal Burutzari, ikuskapena egin eta gehienez ere hilabeteko epean.

59. art.- Garbiketa-produktuak

Esleipendunak, kontratuaren hasieran, zerbitzuan erabil daitezkeen produktuen zerrenda aurkeztu beharko du, eta horietako bakoitzaren funtzioa edo aplikazio-azalera, erabilera-dosifikazioa eta segurtasun-fitxa azaldu beharko ditu.

Usainak eta orbanak ezabatzeko erabiltzen diren garbiketa-produktuek I. motako eko-etiketaren baten konposizio-baldintzak beteko dituzte (adibidez, Europako Etiketa Ekologikoa, Zisne Nordikoa edo baliokidea), produktuaren formulazioan dauden konposatu kimikoei dagokienez.

60. art.- Kontratu honetako materiala kontratatutako zerbitzuetarako baino ez da erabiliko, eta ezingo da erabili kontratutik kanpoko zerbitzuetarako, Udalak berariaz agindu edo onartzen ez badu, behintzat.

61. art.- Enpresa esleipendunak bermatu behar du makinak egoera onean dauzkala, eta hurrengo kontratuan erabili ahal izango direla. Horretarako, kontratuaren azken sei hilabetean, Ibilgailuen Azterketa Teknikoak ikuskatuko ditu, eta behar diren konponketak egingo ditu, enpresa esleipendunaren kontura.

VI. KAPITULUA - INSTALAZIO FINKOAK

62. art.- Honako hauek hartuko dira instalazio finkotzat: garajeak, lantegiak, biltegiak, bulegoak, langileak biltzeko zentroak eta abar, baldin eta materiala egoteko eta mantentzeko eta langileak kontzentratzeko eta banatzeko balio badute, instalazio osagarriak ere barne direla (komunak, aldagelak eta abar), Laneko Segurtasun eta Osasuneko araudian xedatutakoaren arabera.

63. art.- Enpresa esleipendunak bulego orokorrak izan beharko ditu Donostian edo Donostiatik hurbil dauden herrietan. Nabe bat ere izan behar du, ibilgailuak gordetzeko eta lantegi eta biltegi moduan erabiltzeko, zerbitzuetan erabiliko diren ibilgailuak konpondu, mantendu eta kontserbatzearren. Nabeak lan horietarako esleituko diren langileentzat ere izango da, eta Donostiako udalerrian edo Donostiatik gertu dauden herrietan egon beharko du.

Zerbitzuak ematen dituzten langileak kontzentratzeko eta banatzeko, lizitatzaileak proposatu beharko du hiriko hainbat tokitan estrategikoki kokatutako lokalak erabiltzea. Lokal horien kopurua eta kokalekua beharrezkotzat jotzen dituena izango dira.

Lokal horien kokapenaren eta barne-banaketaren plano xehatuak aurkeztuko dira, lantoki batek izan ohi dituen instalazioei arreta berezia eskainiz, indarrean dagoen araudiaren arabera.

64. art.- Udalak ez du inolako konpromisorik izango enpresa esleipendunak kontratuan erabiltzen dituen lokalak direla-eta.

65. art.- Kontratu osoan instalazio finkoak erabiltzeagatik sortzen diren ur, argi, telefono, gas eta abarren gastuak enpresa esleipendunaren kontura joango dira.

66. art.- Enpresa esleipendunaren betebeharra da instalazio finkoak osatzen dituzten elementu guztiak kontserbazio-egoera onean eta garbi mantentzea.

67. art.- Langileen kontzentraziorako eta banaketarako lokalen barrualdean eta kanpoaldean, langileek jokabide baketsua izango dute, eta ez da izango eskandalu, oihu eta abarrik, bizilagunei eragozpenak ez sortzeko. Arau hori materiala erabiltzean ere bete behar da. Bete ezean, enpresa esleipenduna izango da erantzulea.

68. art.- Enpresa esleipendunaren betebeharra izango da dauden ibilgailu-sare osoa zerbitzua emateko baldintza ezin hobeetan egoteko behar diren kontserbazio, mantentze eta konponketa lanak antolatzea eta gauzatzea.

Bestalde, lanaldi bakoitzaren ondoren ibilgailu guztiak garbituko dira.

69. art.- Ibilgailu elektrikoak dauden instalazioek karga-puntu elektriko egokiak izan beharko dituzte zerbitzuan erabiltzen diren ibilgailuetarako.

70. art.- Udalak kontrolatzen baditu ere, instalazio finkoak zaintzea enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango da, eguneko 24 orduetan, eta instalazioen erabateko segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren elementu pertsonalak izan beharko ditu.

VII. KAPITULUA - ZERBITZU OROKORRAK

71. art.- Kapitulu honetan, zerbitzu guztietarako komunak diren zerbitzu tekniko eta administratiboei, biltegiei, kontrol eta zaintza lanei, lantegiei eta abarrei buruzkoa sartzen da.

Lizitatzaileek zerbitzu horiei buruz kapitulu honetan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte beren eskaintzetan.

72. art.- Lizitatzaileek, beren eskaintzetan, ahalik eta xehetasun handienarekin definituko dute zerbitzu honetako zereginak behar bezala egiteko behar den administrazio-talde guztia. Beren eskaintzetan, zerbitzuari atxikitako baliabide guztiak adieraziko dituzte, giza baliabideak zein baliabide materialak, eta horien urteko kostua.

VIII. KAPITULUA - LANEN ANTOLAKETA ETA PLANGINTZA. KONTROL-SISTEMAK

73. art.- Lizitatzaileak zerbitzua kontrolatzeko sistema bat aurkeztu beharko du. Horren bidez, Udalak enpresa esleipendunari agindutako jarduera guztien etengabeko jarraipena egin ahal izango du, baita denbora errealean ere.

74. art.- Sistema horrek euskarri informatikoan egon behar du osorik, eta aplikazio grafikoa izan behar du. Paperean aurkeztuko da. bakar-bakarrik, Udalak hala eskatuta, txostenak edo planoak egiteko. Udalari eman beharko zaio sistema horren sarbidea, Udal Zerbitzuaren ordenagailuetatik bizkor eta eraginkortasunez sartu ahal izan dadin.

75. art.- Enpresa esleipendunak etengabe elikatu behar du sistema hori, datu errealekin eta etengabe eguneratuekin.

76. art.- Sistema horren alderdi teknologikoa etengabe eguneratu beharko da, kontratuan zehar prestazioak hobetuz.

77. art.- Kontratuaren enpresa esleipendunak honako hauei buruzko informazioa REST zerbitzuen bidez argitaratu beharko du, 17. eranskinean zehazten den ereduaren arabera:

planifikatutako garbiketa-ibilbideak
garbitu beharreko elementuak: inbentarioa
ibilgailuak: posizioak denbora errealean
lan-parteak
ibilgailuen eta langileen sarrerak eta irteerak
antzemandako gorabeherak

REST zerbitzuek erabilgarri egon beharko dute eta datuak eskaini beharko dituzte kontratua esleitu eta, gehienez ere, 3 hilabeteko epean.

Enpresa esleipendunak denbora errealean eguneratuta eduki beharko du lehen deskribatutako sisteman egindako lanei buruzko informazioa.

Udalak egoki jotzen dituen kalitate-kontroleko prozesuak egingo ditu, jasotako informazioa baliozkotzeko.

Inbentarioa mantentzeko eta lan-parteak kudeatzeko, enpresa esleipendunak tabletak, ordenagailuak eta beharrezkotzat jotzen dituen aparatu guztiak eman beharko dizkie bere lan-taldeei.

78. art.- Kontratatutako zerbitzuak udal administrazioaren ikuskapenaren eta zaintzaren mende egongo dira beti. Udalak beretzat gordetzen du honako hauek ikuskatzeko eskubidea: langileak, materialak eta erasandako prozesuak (ibilgailuak, tresnak, e.a.), egokitzat jotzen duen momentuan, kontratu honetako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko. Ikuskapenak mugatuko dira esleipendunak eskainitako giza baliabideak eta baliabide materialak badituela egiaztatzera.

Enpresa esleipendunak betebehar hori betetzeko behar diren dokumentu guztiak erakutsi beharko ditu, eta,

bereziki, gizarte-aseguruei, lan-istripuei, aseguru-polizei, instalazioei eta materialari buruzkoak, eta, oro har, Udal honen erantzukizun subsidiario guztiak saihesteko jarduera guztiak baimendu beharko ditu.

79. art.- Enpresa esleipendunak hilero aurkeztuko ditu lan-egoeraren laburpena; istripu nahiz gaixotasunengatiko bajak eta hutsegiteak.

Bestalde, hilero, ziurtagiriekin batera, zerbitzuari dagozkion RNTak bidaliko zaizkie zerbitzu teknikoei.

80. art.- Proposatzen diren taldeek egin beharreko lanen ondorioz, lizitatzaileek beren eskaintzetan aditzera emango dute antolaketari buruz egokitzat jotzen dituzten alderdiak, bereziki honako hauek zehaztuta:

- Ekarritako elementu pertsonal eta material guztien organigrama zehatza.
- Kontrol-sistemak, Udalari eman ahal izateko langileen antolaketa, aurreikusitako eta egindako lanak eta abar justifikatzeko behar diren datuak.
- Aurreikusitako maila guztietako aginte-postuen zerrenda, beren eginkizun orokorrak zehaztuta.
- Beharrezko barne-zerbitzu guztiei lotutako antolaketa-dispositiboak eta dispositibo pertsonalak.
- Ibilgailuen mantentze-lanak.
- Instalazio finkoen mantentze-lanak.
- Lanen plangintza operatiboa.
- Langileen kudeaketa eta gizarte-aseguruak.

81. art.- Udalak langile guztien edo batzuen ordutegiak aldatzeko exijitu ahal izango dio enpresa esleipendunari, behin-behingoz edo behin betiko. Aldaketa hori justifikatua izango da, inguruabar bereziak edo eraginkortasun-arrazoiak direla-eta. Enpresa esleipendunak errekerimenduari erantzun beharko dio, eta ez du eskubiderik izango diru gehiago jasotzeko horregatik.

82. art.- Enpresa esleipendunak eguneroko parteak aurkeztu beharko ditu, bertan bilduta egindako lanak eta zerbitzuan gertatu diren inguruabar guztiak. Bestalde, egokitzat jotzen dituen jarraibideak jasoko ditu udal administraziotik. Enpresa esleipendunak betebehar hori betetzeko behar diren dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu, bereziki gizarte-aseguruei, lan-istripuei, aseguru-polizei, instalazioei eta materialari buruzkoak, eta, oro har, udal honen erantzukizun subsidiarioa saihesteko jarduera guztiak baimendu beharko ditu.

Enpresa esleipendunak behartuta dago, baita ere, kontrata honetako zerbitzuei buruzko txosten eta azterlan guztiak prestatzera, Udal Zerbitzu Teknikoek aginduz gero.

IX. KAPITULUA - ZEHAPEN-ARAUBIDEA

EZ-BETETZEAK ETA ZEHAPENAK

EZ-BETETZEAK

Enpresa esleipendunak zerbitzuak ematean egiten dituen ez-betetzeak oso larri, larri edo arinak izan daitezke.

Hauek izango dira oso ez-betetze larriak:

a) Zerbitzua epe barruan ematen ez hastea.

b) Zerbitzuaren kudeaketa etetea, oinarrizko zerbitzuak ez ematea edo behar ez bezala ematea, ingurumenean, osasungarritasunean eta higiene publikoan eragin kaltegarria izanik.

c) Kontratuan jasotako edozein zerbitzuren lan-programan aldaketa handiak egitea, Udalaren baimena izan gabe.

d) Zerbitzu bakoitzerako aurreikusitako langileak eta/edo ekipoak ez izatea.

e) Ordutegiak sistematikoki atzeratzea, ezarritako bitartekoak ez erabiltzea edo bitarteko mekanikoak gaizki kontserbatzea.

f) Zerbitzuari atxikitako baliabideak zerbitzuari ez dagozkion lanetan erabiltzea, aldez aurreko baimenik gabe.

g) Udalak eskatutako zerbitzuari buruzko informazioa ez ematea.

h) Indarrean dagoen legerian aurreikusitako segurtasun eta higiene neurriak ez betetzea.

i) Zerbitzuen ordenari, formari eta erregimenari buruz eta, oro har, zerbitzuak emateko arauei buruz Udalak emandako agindu formalak ez betetzea.

j) Oporretan edo bajan dauden langileak ez ordezkatzea.

k) Sei hilabete iragan aurretik, bi hutsegite larri edo gehiago egitea.

Honako hauek izango dira ez-betetze larriak:

a) Zerbitzuak ematean atzerapen ez-sistematikoa izatea.

b) Lanposturako kualifikaziorik ez duten edo kontratuan ezarritakoa baino kualifikazio txikiagoa duten langileekin ordezkatzea ordezkatu behar diren langileak.

c) Enpresa esleipendunari atxikitako langileek auzotarrekin izandako istiluak, bai tratu desegokiagatik bai zerbitzu eskasa emateagatik.

d) Agintariak, beren karguan ari diren funtzionarioak edo agintaritzaren agenteak errespeturik gabe tratatzea.

e) Eguneroko lan-parteak eta langileen sarrerak eta irteerak ez aurkeztea modu puntual eta sistematikoan, eta horiek, gainera, gabeziak izatea egiazkotasunari eta informaziorik ezari dagokienez.

k) Sei hilabete baino gutxiago iragan baino lehen, bi hutsegite arin edo gehiago egitea.

Ez-betetze arintzat hartuko dira aurreko apartatuetan aurreikusten ez diren gainerako guztiak, baldin eta, nolabait, Preskripzio Agirietan ezarritako baldintzen kalterako badira, zerbitzuei kalte ez-larria eragin gabe, edo langileen edo erabilitako baliabideen itxuran akatsak eragiten badituzte.

Donostiako Udalari baino ez dagokio aurreko ataletan jasotako edozein ez-betetze kalifikatzea.

ZEHAPENAK

Donostiako Udalak honako zehapen hauek ezarri ahal izango dizkio enpresa esleipendunari:

a) Ez-betetze oso larriagatik, 10.000 eurotik 15.000 eurora bitarteko isuna.

Hiru ez-betetze oso larri eginez gero, kontratua suntsiarazi egingo da.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Easo, 43 2º | Tel. 010 - 943481038 | udala_hirizerbitzuak@donostia.eus www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

b) Ez-betetze larria egiteagatik, 6.000 eurotik 10.000 eurora bitarteko isuna ezarriko da.

c) Huts-egite arinak 600 eurotik 10.000 eurora bitarteko isunekin zehatu ahal izango dira.

Donostian, sinaduraren egunean

Hiri Zerbitzuetako teknikaria,

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Miren Nekane Arzallus Iturriza (19/03/2024 10:01 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : I8VH-YE8X-VMI8-7Z0Z